# Mendekotasun egoera baloratzeko zerbitzua.

***Prestazio mota:*** Bermatua.

***Baliabide mota:*** Arreta anbulatorioko zerbitzua.

***Baliabidearen xedea:*** Mendekotasun gradua eta maila baloratu, aitortu eta egiaztatzea, eta pertsonak behar dituen zainketen gaineko orientazioa ematea.

***Onuradunak:*** Edozein pertsona, adin mugarik gabe.

***Jasotzeko baldintzak:*** Eskaera egin aurreko bi urteetan Nafarroan benetan eta jarraian bizi izan dela frogatzea edo, Espainiako beste toki batetik etorritakoa denean, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezartzen diren irizpideak betetzea.

***Zerbitzua irekita:*** Urteko lan egun guztietan, astelehenetik ostiralera.

***Arreta emateko tokia:*** Pertsonaren bizitokian, ahal dela etxean.

***Zerbitzuaren intentsitatea:*** Balorazio bat erabiltzaile bakoitzeko.

***Emateko epea:*** Hiru hilabete.

***Ordainketan parte hartzea:*** Ez.

***Jarduteko eremua:*** Nafarroako Foru Komunitatea.